

Kontingentzia-plana **2021-2022**

**COVID19REKIKO ESPOSIZIOAREN ARRISKUA
MURRIZTEKO IES ZARAOBE BHIIn.**



Arduradunak

**Zaraobeko zuzendaritza taldea.
Zaraobeko Covid prebentziorako arduraduna eta lan arriskuen arduraduna.**

Eguneratuta: 2021ko urriaren 11n

Aurkibidea

1. Sarrera.....	2
2. Helburuak.....	2
3. Higiene eta prebentzio neurriak Zaraoben.....	3
4. Kasuen kudeaketa.....	4
5. Eskola bizitzaren antolaketa	6
6. Komunikazioa.....	9
7. Hiru agertokiaren planifikazioa.....	10
8. Jarraipen batzordea.....	10
9. Eranskina: Sarrera eta patioen planoak.....	11

1. Sarrera

Pandemiaren hasieratik urtebete eta erdi igaro ondoren denok ikasi dugu zein neurri diren eraginkorrenak gaixotasunaren eragina murrizteko. Protokolo hau egiteko momentuan gainera, intzidentzia baxuko egoeran gaude, eta uste dugu egoera hobera egingo duela hurrengo hilabetetetan, txertaketaren eragin positiboari esker batez ere.

Nolanahi ere, gure eginkizuna protokolo honetan neurri orokor batzuk ezartzea da, Hezkuntza Sailak ezarritako aginduan oinarriturik. Eta agindu horretan bertan adierazten den bezala *Protokolo hau dinamikoa da, eta osasun-agintariek ezarritako jarraibideen arabera eguneratuko da uneoro.*

Kontingentzia Plan hau hainbat dokumentu kontuan hartuta sortu dugu:

- SRPL/LAPZren prebentzio neurrien dokumentua.
- Kurtso Hasierako Ebazpena.
- 2021-2022 ikasturtearen hasierarako jarduketa-protokolo orokorra koronabirusaren (sars-cov-2) aurrean.

2. Helburuak

- Osasuna bermatzea (fisikoa eta afektiboa) eta inguru ziur eta osasungarri bat sustatzea.
- Ikasle guztien bertaratzea bermatzea.
- Ikasle guztiek klaseak jarraitzeko baliabideak izatea (ekipoak/konexioa).
- Irakasleek klase erdi-presentzialak eta urrutikoak emateko metodologia egokitzea.
- Ikas komunitate osoaren komunikazioa bermatzea (ikasle/irakasle; irakasle/familiak, irakasleen arteko koordinazioa...).
- Premia bereziak dituzten ikasleen diagnostikoa egin eta indartze neurriak diseinatzea (suspentsoak, gutxienezko mailan ez dutenak (batez ere Zaraobera datozen ikasle berriak).
- Irakasleek konpetentzia guztiak lortzea.
- Hezkuntza jarduera ahalik eta era normalizatuenean lortzea.
- Antolakuntza egokia lortzea, pertsonen arteko ziurtasun distantzia mantentzeko.
- Kasuen detekzio goiztiarra eta kudeaketa egokia.
- Osasun Publikoarekiko eta Osakidetzarekiko koordinazioa, balizko kasu baten aurrean.

3. Higiene eta prebentzio neurriak Zaraoben

1. Ezin da sukarrarekin eskolara etorri (>37°). Familia bakoitzaren eta norberaren ardura da osasun egoera konprobatzea, autobusera edo eskolara abiatu aurretik. Bestalde, eskolako lehenengo minutuetan tenperatura hartuko zaie ikasle guztiei.

COVID19aren sintomak hauexek dira

- 37°C-ko sukarra
- Eztul lehorra
- Eztarriko mina
- Arnasteko zailtasunak
- Usaintzeko eta dastatzeko zailtasunak

2. Ez dira ikastetxera etorriko COVID-19 diagnostikoagatik isolatuta dauden ikasle edo langileak edo etxean berrogeialdian daudenak.
3. Maskara nahitaezkoa da, Osasun agintaritzek homologatutako maskara higieniko edo kirurgikoak erabiliko dira. Norbaitek ziurtagiri ofizial bat aurkezten badu musukoa ezin dela erabili esanez, ikuskaritzarekin kontsultatuko da, kasuan kasu, zein den konponbidea.
4. Esparru guztiak aireztatuta mantenduko dira.
5. Transmisio txikiagoko egoeran gaudenez, pertsonen arteko interakzioetan, distantzia 1,2 metrokoa izango da.
6. Espazioek aforo mugatua daukate.
7. Taldeak ahalik eta egonkorrenak izango dira.
8. Eskuak zentrora eta klasera sartu baino lehen garbitu behar dira. Eskuetako higieena maiz egin behar da eta era egokian, 40 segundu ur eta xaboiarekin eta 20 segundu gel hidroalkoholikoarekin.
9. Sartu-irtenak, ikastegian zein gelan, modu ordenatuan egin behar dira: ez da pilaketarik egon behar eta segurtasun tartea gorde behar da. Sarrera desberdinak erabiliko dira, taldeen arabera. Sartzeko ate eta ibilbide ezberdinak ezarriko ditugu ikasleentzat.
10. Ikasle bakoitzak leku bat izango du esleituta ikasgelan, besteengandik bananduta. Saihestu behar dira klase barruko mugimenduak, eta klase gehienak erreferentzia gelan egiten. Erreferentziako ikasgelatik kanpo egiten diren ekintzetan ere klaseko egitura eta posizioak saiatu behar da mantentzen, kontaktu kopuruak murrizteko.
11. DBHko 1. eta 2. mailetan, Lan-talde egonkorak egin ahal izango dira ikasgelan (3 edo 4 ikasleko talde egonkorak), baina taldekatze horien arteko distantzia 1,2 metrotik gorakoa izan beharko da. Taldekatze horiek egonkorak izango dira gutxienez 10 egun baino gehiagoko oporraldietara arte, eta, ahal dela, hautazko irakasgai berberak dituzten ikasleek osatuko dituzte.

12. Saioen artean, taldea klase barruan egongo da. Atera beharko balira, irakaslearekin batera egongo dira eta jarrera egokiarekin.
13. Aire zabaleko jolasetan eta jardueretan nahitaezkoa izango da maskara erabiltzea, betiere pertsonen arteko 1,5 metroko distantzia errespetatzen ez bada. Ez da beharrezkoa izango elikagaiak eta edariak hartzeko, ezta kanpoaldean jarduera fisiko bizia egiten denean ere.
14. Eraikin barruan elikagaiak kontsumitzea saihestu behar da. Ikasleek jangelan eta jolastokietan bakarrik kontsumitu behar dituzte elikagaiak.
15. Irakaslearentzako sarbide-ateak eta ibilbideak ezarriko ditugu
16. Ikastetxean dauden bitartean ikasleek ikastetxeko arduradunen edota irakasleen argibideak jarraitu beharko dituzte momentu eta eremu guztietan.
17. Eztul edo doministiku egiteko, estali behar dira ahoa eta sudurra paperezko musuzapi batekin, eta gero bota zakarrontzira. Paperik ezean, eztul edo doministikurik besoaren gainean, ukondoaren barneko angeluan, eskuak ez kutsatzeko. Eskuak kutsatuz gero, ez ukitu aurpegia, sudurra edo begiak eta garbitu eskuak berehala.
18. Ikasleek norberaren lantokia garbitzen lagunduko dute. Libre utzi behar dira lan-mahaietako gainazalak eta lan- eremuan egon daitezkeen beste azalera komun batzuk, garbiketako langileek errazago garbitu ahal izateko.
19. Ikasleek ezin dute fotokopiagailua erabili.
20. Oro har, irakasleen eta familien bilera guztiak aurrez aurre egin ahal izango dira, betiere higie- eta aireztapen-neurriak gordez.

4. Kasuen kudeaketa

Prebentzio neurriak gora behera, kurtsoan zehar egoera desberdinak suerta daitezke. [Hauek dira Hezkuntza Sailak aurreikusten dituen egoera ezberdinak.](#)

- a) Pertsona batek COVID-19rekin bateragarria duen sintomatologia du.
- b) Kasu bat baieztatu da ikastetxean.
- c) Kasu bat baino gehiago dago, baina agerraldi kontrolatuak edo noizbehinkako kasuak dira. Transmisio-kateak ondo definituta badaude.
- d) Agerraldi konplexuak edo noizbehinkako komunitate-transmisioa dago.
- e) Kontrolik gabeko transmisio komunitarioa dago.

Kasuen arabera, zentroak honela jardungo du:

Covid-19rekin bateragarriak diren sintomak dituzten ikasleak, irakasleak eta bestelako profesionalak ez dira ikastetxera joango, ez eta Covid-19ren diagnostikoagatik isolatuta daudenak edo

Covid-19rekin bateragarriak diren sintomak dituen pertsonaren batekin kontaktua izateagatik berrogeialdian daudenak ere.

Irakasleek, administrazio eta zerbitzuetako langileek eta ikasleek (ikasle adingabeen kasuan, gurasoek edo legezko tutoreek) ikastetxeetako zuzendaritzeari ohartarazi beharko diete beraiek edo etxean norbait Covid-19rekin diagnostikatu duten.

Zentroan Covid-19rekin bateragarria den sintomatologia duten pertsona guztiek honako jarduera-protokolo hau jarraituko dute:

- Ikastetxe bakoitzak erreferentziazko ESla izango du.
- COVID-19arekin bateragarriak diren sintomak dituzten ikasle, irakasle edo langileak ez dira eskolara bertaratuko. Ez dira bertaratuko, ezta ere, COVID-19a diagnostikatu zaielako isolatuta dauden guztiak, ez eta COVID-19aren sintomak agertzen dituen edo diagnostikoa jaso duen lagunen batekin harreman estuan egon delako etxean berrogeialdian dagoen lagun oro ere.
- Beren etxeko norbaitek COVID-19aren diagnostikoa jaso badu, gurasoek edo tutoreek horren berri emango diete eskolako agintariei eta seme edo alaba etxean mantendu beharko dute.
- Ikastetxean, Covid-19arekin bateragarria den sintomatologia aurkezten duen persona orok, hurrengo protokoloa jarraituko du:
 - Ikasleek gelan dagoen irakasleari esango diote, bestela, ikastetxeko zuzendaritzari,
 - Adin txikiko ikaslea balitz, ikastetxetik familiari edo tutoreei deituko zaie, etxera eramateko.
 - Familia Osasun Zentroarekin harremanetan jarriko da, argibideak jarraitzeko.
 - Síntoma bateragarriak dituzten irakasleek edo PASEk zuzendaritzari esango diote. Beharrezkoa balitz, isolamendu-gelara joango dira, ondoren, etxera alde egiteko.
 - Administrazio edo Zerbitzuei dagokien langileen kasuan, zuzendaritzari komunikatuko diote, eta baita haien Prebentzio Zerbitzuari. Era berean, zuzendaritzak Hezkuntza Saileko Prebentzio Zerbitzuari jakinaraziko dio. Halaber, zuzendaritzak, Planifikazio eta antolamenduaren zuzendaritzari egoeraren berri emango dio.
- Kasu positibo bat baieztatzen denean dagokigun OSIaren aginduei jarraituko diogu une oro.

Teléfono Araba 688670550. Email: prebentziohezkuntza@euskadi.eus
Eskola-Osasuna. BarrualdeGaldakao@osakidetza.eus

5. Eskola bizitzarako antolaketa

5.1. Aurrez aurreko irakaskuntza.

2021-2022 ikasturte honetarako irakaskuntza eta hezkuntza-maila guztietan presentzialtasun egoera bat planteatzen dugu, higiene-neurriekin, kontaktuak mugatzearekin, aireztapen egokiarekin eta maskara erabiltzearekin. Ikasleren bat konfinatu behar bada, tutoreak eta irakasle taldeak online baliabideak erabilita, ikasle honen jarraipen estua bermatuko du.

5.2. Digitalizazioa.

Irakasleek sortutako material digitala sareko hainbat plataformetan egongo da eskuragarri ikasleentzat. Digitalizazioaren aldeko apostua egingo da, balizko bigarren edo hirugarren agertokirako trantsizioan pentsatuz.

5.3. Instalazioetara sarrera eta barne ibilbidea. (Ikus planoaren eranskina)

Orokorrean zaintzak indartuko dira.

Zaintza edo guardiako irakasleek, atezainek lagunduta, sarrerak eta irteerak zainduko dituzte. Lehen orduko irakasleak gelako atetik gertu edo gelan itxarongo dute. DBH1 eta DBH2ko ikasleen kasuan, irakasleak bila joan, antolatu eta klasera lagunduko dituzte.

Sarreraren dinamika:

- Ikasleak ilaran sartuko dira, ilara mantenduz, lasaitasunez, distantzia errespetatuz metaketak saihestuz. Zaintza irakasle bat sarreretan egongo da.

Eskuak garbitzen dira sartu aurretik, desinfekzio gunean (sarrera).

- 1-2 batx: lanbide heziketatik. Ate hori irekita egon behar da. 08:20-08:30
- 3-4 dbh: sarrera nagusitik 08:20-08:30
- 1-2 dbh: goiko patiotik 08:20-08:30
- Lanbide Heziketa: Etxegoieneko goiko hesitik, Lanbide Heziketako ate nagusira.

SARRERA: 08:05etik 08:15era, sarrera malgua izango da. Bi ate egongo dira irekita: larrialdi atea 1.solairura doazenentzat eta sarrera nagusia 2. eta 3.solairura doazenentzat.

IRTEERA: 14:45ean, bi ateak irekiko dira.

JOLASTORDUA: 11:15-11:45. Sarrerak eta irteerak aurreko puntuetan adierazi den bezala egingo dira.

- Klaseen arteko mugimenduak murriztuko dira. Beharrezkoa denean, pasabideetan, eskuinaldetik mugituko gara, geziei jarraituz.

5.4. Ikasgelak.

- Ikasleen mahaiak banandurik egon behar dira, ahal neurrian. Ahalik eta urrunen egongo dira elkarrengandik eta ez dira trukatu.
- Atezainek eta irakasleek gela aireztatu dituzte. Horretarako, leihoak goiko aldetik irekita eta ateak zabalik mantenduko dituzte. Horrez gain, gutxienez, leihoak 20 minutu 5 minutu zabaldu beharko dira, bereziki, talde aldaketetan.
- Instalazioak, tresneria eta materiala ez partekatzea lehenetsiko da. Ikasle bakoitzak leku bera mantenduko du, ahal den heinean.
- Irakasleek mahaiak eta aulkiak ez trukatzeko eskatu.
- Irakasleak ahalik eta gutxien altxatu dira, gelan zehar ibiltzea saihestuz. Ahal dela, irakaslea izango da ikasle bakoitzaren mahaira hurbilduko dena.
- Objekturik eta materialik ez dira partekatuko, guztiek ekarri behar dute etxetik klasea jarraitu ahal izateko behar dutena.

5.5. Tailerrak:

- Ikasle bakoitzak leku bera mantenduko du, ahal den heinean.
- Irakasleak behar-beharrezko denean bakarrik mugituko da gelatik edo beste tailerretara.
- 1.5m-ko distantzia mantenduko da. Mantentzea ezinezkoa bada, irakasleak babes-pantaila erabili behar izango du.

5.6. Patioak. (ikus planoaren eranskina).

- DBH:
 - DBH 1eko irakasleak lehen zikloko jolastokira joango dira.
 - DBHko 2. mailako irakasleak erdiko patioa eta frontoira joango dira.
 - DBHko 3. eta 4. mailako irakasleak patio nagusiaren beheko aldean edo sarrera nagusian egongo dira.
 - Batxilergokoak kalean egongo dira (zikloetako atetik aterako dira)
- Formakuntza zikloetako ikasleen atsedena 11:15etatik 11:45etara izango da. Sarrera eta irteera 5.3 puntuan adierazi bezala egingo da.
- Patio zaintzak: Zaintzak indartuko dira.
 - Patio zaintza duten irakasleek ikuskatu behar dute:
 - Kontzentrazioak ez daitezken egon.
 - Komunak erabilera egokia izan dadin.
 - Higiene neurriak betetzen direla.
 - Patio orduaren ondoren irakaslea klasean egongo da, ate ondoan,

ikasleak bideratzeko.

- Atsedenaldiaren ostean, irakaslea klasean egongo da, ate ondoan edo klase barruan. DBH1 eta DBH2ko irakasleak ikasleen bila joango dira patiora eta klasera lagunduko dituzte.

5.7. Komunak.

Komunen horniketa egokia bermatuko da:

Aforo mugatua ezarriko da.

Komunen erabilera ezinbesteko diren beharretara mugatuko da, baina erabiltzearen debekurik ez da egongo.

Komunen erabilera desegokia antzemango balitz (ikasleen pilaketa, kasu), kontrola zorroztoz litzateke (zaintzako irakaslea lagunduta joatea, adibidez). Nolanahi ere, lehen zikloko komunetan horrela egingo da hasieratik.

5.8 Irakasle gelak eta mintegiak.

Ahal dela, mintegietan eta irakasle geletan ere, aforoa errespetatu behar da. Beste tokietan bezala, distantziak mantenduko dira bulego eta espazio erabilgarrietan, Maskara erabiliko da eta. Gelak aireztatuta edukiko dira.

5.9. Idazkaritza.

Mahaien arteko manparak ezarri dira, bai eta lehiatiletan ere.

5.10. Igogailua eta eskailerak.

Igogailua salbuespenez erabiliko da, eta pertsona bakarra egon daiteke barruan. Erabiltzaileak, igogailura sartu ondoren, botoiak sakatuko ditu, gero botako duen paperezko zapi batekin.

- Batxillerreko ikasleak mendebaldeko eskaileretatik mugituko dira. 3-4 DBHkoak kalitate gelaren ondoko eskaileretatik. 1-2 DBH iparraldeko eraikineko eskaileretatik.
- Eskailerak igo edo jaistean, lau maila inguru uztea gomendatzen da, aurretik igozten edo jaisten den pertsonarekin.
- Ez da komeni, eta saihestu behar da, eskaileren eskubandak ikutzea.

5.11. Garraioa.

Ikasleek eserleku berbera erabiliko dute ikasturtean zehar. Arduradunak eserlekuen zerrenda edukiko du. Maskara jantzita une guztietan.

5.12. Jantokia.

Jantoki zerbitzuan, "Lan-arriskuen prebentziorako neurriak EAEko ikastetxeetan, COVID-19ren eraginpean egoteko arriskuari aurre egiteko" dokumentuan ezarritako neurriak errespetatuko dira, bai eta berriazko beste dokumentu honetakoak ere: [Eskola-jantokietan Covid-19ri aurre egiteko aplikatu beharreko prebentzio-neurriak](#).

5.13 Hondakinen kudeaketa.

Zaborrontziak aldatu dira, pedal bidez irakitzekoak gela guztietan ezarriz. Eskuak lehortzeko edo "arnas etiketa" betetzeko erabiltzen dituzten erabili eta botatzeko zapiak. Higiene pertsonaleko material oro (maskarak, latexezko eskularruak, etab.) ontzi horretara joango dira.

5.14 Garbiketa.

Garbiketako langile bat egongo da goizeko txandan, punturik garrantzitsuenak garbi mantentzeko, batez ere komunak. Arratsaldeko garbiketa ere indartu egin da lanaldi erdiko langile batekin. Nolanahi ere, garbiketako langileek Hezkuntza Sailaren gomendioak eta jarraibideak beteko dituzte uneoro, ikastetxea higiene-baldintza onenetan mantentzeko.

5.15 Maskarilla edo musukoen kudeaketa

- Maskara kirurgiko edo higieniko homologatuak erabiliko dira.
- FFP2 maskarak ere egongo dira. Horiek arrisku kasuak kudeatu behar direnean erabiliko dira eta irakasle gelan zein isolamendu-gelan egongo dira.
- Maskara kirurgikoak 4 orduz erabili daitezke eta beraz, egunean 2 erabiliko dira gehienez jota.
- Ikasleek maskara izan behar dute jantzita, eta familia edo tutoreen ardura izango da maskara baldintza egokian egotea.

6. komunikazioa

Zuzendaritza-taldeak bermatuko du ikastetxeetan ezarritako jarduera protokoloiei eta prebentzio-, higiene- eta osasun-sustapeneko neurriei buruzko informazioa hezkuntza-komunitate osoak jasotzen duela.

1. Prebentzio- eta higiene-neurriei buruzko informazioa emango zaie ikastetxeko langileei. Neurri horiek, era berean, komunikazioa erraztuko diete hezkuntza-komunitateko gainerako langileei.
2. Infografiak, kartelak, audioak eta seinaleak erabiliko dira, prebentzio- eta higiene-neurriak betetzea eta ulertzea sustatzeko. Osasun-agintarien jarraibideak aldatzen badira, informazio hori eguneratuko da.

Familiekiko komunikazioa eta harremana kanal hauen bidez izango da:

DBH eta BATXILERGOA:

- WEB orrialdea.

- Telefonoa
- Inika
- WhatsApp zerbitzua

LHn

- Web-tik eta sare sozialen bidez
- Emailaz ikasleekin
- IKASGUNE plataformarekin, husegiteak eta mezuak (landu beharreko aspektua)
- Familiekin komunikazioa errazteko, gurasoen postekin taldeak sortuko ditugu, OLH lehentasuna.

7. Bigarren eta hirugarren agertokiak

Aurtengo irakakuntza presentziala izango da. Hala ere, une jakin batean, egoera semipresentzialera edo online irakaskuntzara pasatu beharko balitz 20-21 ikasturteko kontingentzia plana hartuko da erreferentziatzat.

8. Jarraipen batzordea

Zuzendaria:

Arrisku prebentzioen arduradunak:

OOGko partaidea:

Ikuskaria:

Berritzeguneko aholkularia:

Roberto Marín Requena.


Aida Uterga Orue.

Olga Etxeguren Zurimendi

Inmaculada Pardo Alonso

Miren Urutxurtu Espinosa

9. Erankina: patioen banaketa eta sartu-irteerak



Patioak:

- 1: 1 DBH. Iparraldeko patioa
- 2: 2 DBH Erdialdeko patioa
- 3: 3-4 DBH: Sarrera eta Erdialdeko patioa behekoaldea:
- 4: Lanbide heziketa: mendebaldeko patioa

Sarrerak-irteerak:

- A: 1-2 DBH (Etxegoienetik 1 patioa)
- B: 3-4 DBH, irakasleak (DBH-Batx). sarrera nagusitik
- C: Batxiler: Etxebarriaurretik:
- D: Lanbide heziketako ikasleak eta irakasleak Etxegoieneko goiko hesian zehar.